



# Euskararen tokia bizitza publikoan

Andoni Eizagirre  
2013-03-06/13

1. Euskaingintzak galdu egin du erdigunea, euskarak bizitza publikoan izan beharreko tokiaren lehia sinbolikoan.
2. Hizkuntza gutxitua berreskuratzeko kulturgileen, baliabide kognitiboen, egintza kolektiboen eta mobilizazioen arrakasta erlatiboa eman da.
3. Kultura esparru hegemonikoaren arauak, logikak eta aukerak sendotu egin dira euskararen toki naturalari buruzko definizio sozialetan.
4. Abertzaletasunak ez du aliatze euskaltzalea elikatu, aitzitik, lehia abertzalea euskaingintzaren barne desadostasunen eragile izan da.

1. Arazoa kokatzen.
2. Euskarari buruzko enmarkatze (*to frame*), diskurtso, estrategia eta aliatze (*frame alignment*) euskaltzalea.
3. Ziklo aldaketa definizio sozialaren legitimazio sinbolikoan.
4. Askatasun linguistikoaren diskurtsoa.
5. *Euskara XXI* egitasmoa. XXI. mende hasierarako hizkuntza politikaren oinarriak.

- 1. Arazoa kokatzen.**
2. Euskarari buruzko enmarkatze (*to frame*), diskurtso, estrategia eta aliatze (*frame alignment*) euskaltzalea.
3. Ziklo aldaketa definizio sozialaren legitimazio sinbolikoan.
4. Askatasun linguistikoaren diskurtsoa.
5. *Euskara XXI* egitasmoa. XXI. mende hasierarako hizkuntza politikaren oinarriak.

1. Gizarte mugimenduen eginkizunak:
  - a. Instituzioak eta aldaketaren kontrakoak “ahuldu”, limurtu, konbentzitu, e.a.
  - b. Jendartearen aldaketarako gogoia barneratu, hedatu eta sendotu;
  
2. Bi eginkizun horiek iparra izanda, errepertorio diskurtsiboa eta ekintza kolektiboaren logikak pentsatu behar dira. Horretan asmatzeak, gizarte mobilizatuak eragile atzerakoia (*status quo*) ahultzen du, eta alderantziz, lan eraginkorra egin ahal du gizartearen ilusioa eta grina berpiztuz;
  
3. Beraz, ipar hori motibatu eta gerturatzen duten diskurtsoak eta mobilizazio-tresnak dira egokiak;

4. Gure kasuan, errealitate instituzionalaren eta errealitate sozialaren azterketa soziologikoa egingo dugu.
5. Jakinda (euskararen aldeko mugimendu sozialen kasuan):
  - a. helburua dela: normalizatua ez dagoen komunitate bati normalizaziorako guneak eta espazioak artikulatzen laguntzea;
  - b. zeregina dela: oro har sistemaren kudeatzaileei beren helburuak eta bitartekoak eraldatzera behartzea, normalizaziorako bidean;
  - c. bitartekoa dela: gune eta espazio horietara jendartea erakartzea eta bere gogo-aldartea gaurkotzea;

6. Gaur, beraz, jakin behar ditugu zeintzuk diren instituzioen diskurtsoak normalizazioari begira, horiek direlako gizarte mugimenduek jomugan ipini eta eraldatu beharrekoak.

- Zein da testuinguru makropolitikoa?
- Nola egituratzen dira erakundeak?
- Zeintzuk dira aukera politikorako egiturak?
- Nolakoak dira aktoreen hartu-emanak, aliantzak?
- Zeintzuk dira ekintza kolektiborako faktoreak eta baldintzak?

1. Aldaketa instituzionalak (gizarte antolakuntzan, erakundeen eta pertsonen artean) direla eta: nolako harremanak ehundu ahal dira “administrazioa, gizarte eragileak, hiztunak” hirukoaren artean?;
2. Partaidetza moduak profesionalizatu egin dira. Zeintzuk dira horren inplikazioak elkarte baten antolakuntzan eta zereginean?;
3. Ingurumari soziala eta hiztegi berriaren ernaltzea nabarmendu da. Nola interpretatu “kontsumoa”, “aisialdia”, “gozamen pribatua”?;



4. Gizarte pertzepzioak bilakatu egin dira. Zeintzuk dira herritarren ikusminak eta motibazioak, zeintzuk normalizaziorako arduradunen pertzepzioak, diskurtsoak eta hizkuntza-politika?;
5. Hizkuntza hautua dela eta, zeintzuk dira jendartearen balioak hautua egitean? Zein da modu (in)kontzientean aukerak egiten dizkigun unibertso sinbolikoa? Zeintzuk dira elkarteek transmititu beharreko diskurtsoak?

1. Eginkizuna: Herri mugimenduen bilakaera eta gaurkotasuna aztertzea, bereziki euskararen aldeko mugimendu sozialak.
2. Lanabesa: Ingurumari sozialari begiratua.
3. Lan-hipotesia: “Errepertorio diskurtsibo eta mobilizatzaileak sasoi historikoaren araberakoak dira”.

1. Argibide metodologikoak.
2. **Euskarari buruzko enmarkatze (*to frame*), diskurtso estrategia eta aliatze (*frame alignment*) euskaltzalea.**
3. Ziklo aldaketa definizio sozialaren legitimazio sinbolikoan.
4. Askatasun linguistikoaren diskurtsoa.
5. Euskara XXI egitasmoa. XXI. mende hasierarako hizkuntza politikaren oinarriak.

<b>Sasoi historikoak</b>	<b>Aztergaiak</b>
<ol style="list-style-type: none"><li data-bbox="444 527 1355 731"><b>1. 60-70.eko hamarkadak.</b></li><li data-bbox="444 731 1355 936"><b>2. 75-80.eko hamarkada.</b></li><li data-bbox="444 936 1355 1868"><b>3. Fase berantiarra:</b><ol style="list-style-type: none"><li data-bbox="587 1289 1355 1535"><b>1. Konfluentziak: Borroka-moldeak.</b></li><li data-bbox="587 1616 1355 1868"><b>2. Erakundetzea: Agenda politikoa.</b></li></ol></li></ol>	<ol style="list-style-type: none"><li data-bbox="1355 527 2269 731"><b>1. Testuinguru sozio-politikoa.</b></li><li data-bbox="1355 731 2269 936"><b>2. Arlo kulturala.</b></li><li data-bbox="1355 936 2269 1868"><b>3. Euskararen eta euskal kulturaren aldeko mugimenduak.</b></li></ol>

<p>60/70.eko hamarkadak Testuinguru sozio-politikoa</p>	<p>Europa eta ezker berria (gizarte mugimenduen sendotze-prozesua); Gerra zibila, frankismoa eta gaitzidura: Testuingurua: debekua, errepresioa, bazterketa; Mugimenduak: langileria eta abertzaletasuna; <u>Diskurtso politikoaren ardatza: aurkakotasuna, gatazka;</u> 1970 (Burgos-ko Prozesua) – 1977 (Amnistia orokorra).</p>
<p><b>Arlo kulturala</b></p>	<p>Testuingurua – gerra galdua, diktadura / Iparraldea Gogo-aldarteak – erreakzioa: gaitzidura eta erresistentzia / Kantagintza; Etenak: Orixe / Nemesio / ETA; Xedeak – tradizioaren berreskuratze gaurkotua. Matrize etnikoaren gainditzea / Herria / Debekua / <u>Etorkizuna = Subjektu kontzientzia.</u> Adierazleak – ETA, ideologia, gizon-emakumea, hezkuntza-ikastola, euskarazko prentsa, sukaldaritza berria, kantautoreak; <u>Oskorri – eguraldi ona – “zerua datorkigu Euskal Herrira”.</u> “Guk euskara, zuk zergatik ez”.</p>
<p><b>Euskararen eta euskal kulturaren aldeko mugimenduak</b></p>	<p><u>Esperientzia ziklikoak, XIX. mendea, Pizkundea... hizkuntza, aberria, demokrazia;</u> Frankismoa; 60.eko hamarkadan gizarte mugimenduaren eratzea: Euskararen batasuna eta normalkuntza; Ikastolen abiaraztea; Euskal hiztunak alfabetatzea eta erdaldunei hizkuntza irakastea; Euskara euskal kulturaren alor guztietara zabaltzea. Gizarte mugimendu anitz, zabal eta askotarikoena.</p>

<p>75-80.eko hamarkada Testuinguru soziopolitiko</p>	<p><u>Erreforma, desilusioa:</u> Zatiketak, ezezo politikoa, langile mobilizazioa, kultura/hizkuntza eskariak. Desmobilizazioa, auzo mugimenduen krisialdia. Ezker tradizionalaren ezintasuna eskari berriak erantzuteko. “Berandu agertu, krisiak goiz harrapatu?” Euskal Herriaren berezitasunak: Antolatze, mobilizatze eta eragin gaitasuna; Mugimendu autodeterminista. “Herri mugimenduak” ala “gizarte mugimenduak”?</p>
<p><b>Arlo kulturala</b></p>	<p>1973 – 1980 errealitate gordina: desilusioa, krisi ekonomikoa (langabezia), ajea; 1982: Erantzun berria / “euskal kantagintzak ez die beharrei erantzuna ematen”; Euskal rock mugimendua; 1. “No future for you” – Zarama / ... / Eskorbuto; 2. Haustura: matrizearen aldaketa. Lehen hurbilketak – Konplizitateak. Matrize soziokulturala birformulatu eta sendotzen da.</p>
<p><b>Euskararen eta euskal kulturaren aldeko mugimenduak</b></p>	<p>Legegintza hutsunea: Ofizialtasunaren aldarrikapena; Ekitaldi kolektiboen abiaburua (Kilometroak); Euskararen Liburu Zuria; “Bai Euskarari” kanpaina / Korrika. Euskararen Legeak (1982, 1986): Hizkuntza-politikak, bulego teknikoak, itzulpen zerbitzuak; Euskal Kultur Erakundea (semi-publikoa, 1985).</p>

<p>Fase berantiarra Figura humano berria</p>	<p>Aldibatekotasun esperientziak eta bere kontzientzia. Aukera kulturalen ugaltzea – teknologia berriak – hezkuntza orokortua. Teknologia berriak – eskenatoki sinboliko, afektibo eta kognitiboa ugaritu. Bizitza publikoaren ahultzea - “Hedonismoa”. Ifrentzuak: Hedapena vs.? Sakontasuna; Informazioa vs.? Ezagupidea; Merkatu-logikaren <i>barneraketa</i> eta entropiaren arriskuak; Auto-mugaketa baliabideen ahuleziak: kultura terapeutikoa? Ahalmen-sareak eta gizarte zibila.</p>
<p>Arlo kulturala</p>	<p>Identitate legitimatzailearen inplikazioak: Jendartean <i>adostasuna</i> lortzea du xede; Boterea orain zilegi bilakatu da; Kultura da hegemoniak ber-erakitzeke espazioa; Kultura nagusiak bir-sortu egiten du boterea; Paradoxa: “euskal kultura ez da subalternoa”. Erresistentzia-identitatearen arazoak: “euskal kultura auzitan?” Proiektu-identitatea falta zaigu, eta horren inplikazioak bizi ditugu?</p>
<p>Euskararen eta euskal kulturaren aldeko mugimenduak</p>	<p>Lankidetzaren instituzioekin eta zatikatzeak: Euskal Kulturaren Batzarra / Oinarriak / Deiadar; Helduen euskalduntze politika(-k). Kontzientzia nazionala eta horri batasuna emateko beharra / KONTSEILUA. Aldibereko instituzio paraleloak, kooptazioak, distantziak.</p>

“Aro baten amaiera da bizi duguna”;

Bizitza sozialaren mapa kognitiboa erabat aldatu zaigu;

Ordena *moral*a da, ordena *sozialean* oinarritzen dena; ez alderantziz.



## 1. Faktore unibertsalak

**Erakundetze politikoa**

**Aldaketa soziologikoak,**

**Unibertso sinboliko berria**

## 2. Faktore partikularrak

Trantsizio politikoa

Protesta-zikloaren agortzea

## 3. Faktore konstitutiboak

Euskararen herri mugimenduen gaurkotasunaz

Erakundetze politikoa (azalpena)

1. Azpiegiturak eta burokratizazioa
2. Gizabanakoen kontzientzia eta pribatizazioa

Erakundetze politikoa (inplikazioak)

Testuingurua	Alderdi-sistema, demokrazia Hazkunde ekonomikoa Ongizate soziala
Ahalmen efektiboa	Arlo sozialean: independentzia materiala Arlo kulturean: autonomia indibiduala
Bilbadura sinbolikoa	<p style="text-align: center;"><b>Aldaketak</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Kognitiboak Hezkuntza-sistema orokorra Informazio-, komunikazio-teknologiak</li> <li>2. Afektiboak Familia-balioen erabakitzea Eskubide pertsonalen hedapena</li> <li>3. Kulturalak Bizitza asoziatiboa, askatasun politikoa Ekintza kolektibo berriak</li> </ol>
Subjektu berria	“Subjektu erreflexiboa”, “Herritar indibiduala”

Ikus, “Ingurumari sozialari begiratu”

Andoni Eizagirre, *EKT*, 2011-03-16

## 1. Faktore unibertsalak

Erakundetze politikoa  
Aldaketa soziologikoak,  
Unibertso sinboliko berria

## 2. Faktore partikularrak

**Abertzaletasunaren zatiketa**  
**Protesta-zikloaren agortzea**

## 3. Faktore konstitutiboak

Euskararen herri mugimenduen gaurkotasunaz

1. erakundetze autonomikoa
2. hiper-erakundetzea
3. erresistentzia mugimendua
4. instituzio / mugimendu dialektika
5. abertzaletasunaren zatiketa eta hegemonia lehia
6. euskal kulturaren esparrua erakundetu
7. desafio sinboliko eta egintza politikorako gune
8. atxikimendu afektiboa eta legitimazio soziala auzitan

### Euskal protesta zikloaren agortzea, desmobilizazioa

1. Ez da dilema bat (bezala susmatzen herritarren pertzepzioetan) talka hegemonikoen alderaketa historikoa (abertzaletasunean, euskalgintzan, e.a.); “adostasuna da fetitxe politiko berria”;
2. Talkaren faltan, elkartasunik, polarizaziorik eta mobilizazio-konpromisorik ez?;
3. Ekibalentzia-kateak eta zehar-eraginak ere amaitu dira ... “GU” bat?
4. Metafora berriak dira “inposizioen alboratzea” eta “elkarlana” ... diskurtso legitimatzaileak?

## 1. Faktore unibertsalak

Erakundetze politikoa  
Aldaketa soziologikoak,  
Unibertso sinboliko berria

## 2. Faktore partikularrak

Trantsizio politikoa  
Protesta-zikloaren agortzea

## 3. Faktore konstitutiboak

**Euskararen herri mugimenduen gaurkotasunaz**



Mugimendu sozialaren helburu orokor eta eragingarria da euskararen berreskurapena:

1. instituzionala: erakunde publikoen lan- eta zerbitzu-hizkuntza normala izatea.
2. pertsonala: herritar bakoitza bere premia kultural eta profesionaletan euskara egoki erabiltzeko gauza izatea.
3. kulturala: kulturazko eremu ezberdinetan euskarazko produkzio eta eskaintza kulturala edukitzea.
4. soziala: euskalduna euskaraz bizitzeko moduan euskararen erabilera soziala zabaldua egotea.

<p><b>Euskalgintza I</b></p>	<p><b>Egunerokotasunean oinarritua;</b></p> <p><b>Interferentziak eta liskarrak saihestuz;</b></p> <p><b>Hiztunen taldea egituratu eta indartzea xede dutenak;</b></p> <p><b>Proposamenen izaera: pragmatikoa, positiboa, errealista.</b></p>
<p><b>Euskalgintza II</b></p>	<p><b>Botere-estrategiari atxikiak;</b></p> <p><b>Hizkuntza-politikari kritikoak, Elebitasuna vs. Elebakartasuna;</b></p> <p><b>Jarrera aldarrikatzailea (irakaskuntzan, administrazioan);</b></p> <p><b>Presio soziala, salaketa eta borroka, ekintza zuzena.</b></p>

<b>Baliabide eta antolatzeke moduari begira</b>	<b>Erakunde tekniko-enpresarialak; Profesional-sindikalak; Herri erakunde militanteak.</b>
Ikuspegiaren eta lanerako norabidearen arabera	Norabide politiko eta instituzionala: normalkuntzan eraginarazi;  Norabide antropologikoa: euskara eta hiztunekin lan egin;  Norabide soziologiko eta dialektikoa: berreskurapenerako koordinazioa eta planifikazioa adostu eta gauzatu.

Euskalgintza alorreko enpresa gisa eratuta aritzen direnak, non langileek beren lanbidea eta irabazpidea bertatik baitituzte.

1. Irakaskuntzan
2. Euskararen irakaskuntzan
3. Komunikabideetan
4. Ikus-entzunezkoetan
5. Euskararen inguruko zerbitzu zientifiko eta sozialak
6. Euskararen estandarizazio-lanean dihardutenak
7. Euskara hutsean diharduen hainbat argitaletxe ...

Lanbide zehatzetan dihardutenak, beren interes profesionalak, laboralak eta gremialak babesteko sortuak.

Idazleen elkarteak, Itzultzaileen elkarteak, Irakasleen elkarteak, Euskal kazetarien elkarteak...

Herritarren militantzian oinarriturik, euskararen eta euskal kulturaren aldeko defentsa, gizarte kontzientziatzea, eta euskararen erabilera zabaltzea bilatzen dutenak; erakunde publikoen eta bestelakoen aurrean horren aldarrikapena egiteko eta bestelako eragin soziala izateko.

Adb.: auzoetako eta herrietako euskararen aldeko elkarteak eta koordinakundeak, kultura sektoreetako (irakaskuntza eta bestelakoetako) aldarrikapen eta erabilera-taldeak (EKTak, Euskaraz Bizi, e.a.), Administrazio publikoko, zerbitzu sozialetako eta enpresetako euskara taldeak, bereziki horren erabilera bultzatzeko; euskararen erabilera taldeak; euskararen aldeko herrietako edota nazio mailako erakundeak (EKE, EHE, Oinarriak, EKB)...

## Mugarriak:

Mugimendu sozial euskaltzale berriaren sorrera, EHE, 1979  
EKB, 1983  
Euskara Taldeak  
Udal Agintaritzak  
Kontseilua, 1997

**Hainbat konstante (1979-2013), lekukotza kezkarri bezala**

*(Adb. Kontseilua)*

1995, Egunkaria Sortzen taldearen bilerak:

1. Euskalgintza kohesionatu gabeko multzo bat da
2. Zein da euskararen eta euskalgintzaren jardun estrategikoa?

“Diru-laguntzekiko ezinegona, teknologia berrien aurrean euskarak hartu behar zuen posizioari buruzko kezka, euskalgintzan zegoen ondoezarekiko pertzepziorik eza gizartean, nor bere bidetik aritzea eta elkarlanari ekiteko ezintasunak”.

“*Egunkaria Sortzen*-en merituen artean, eztabaida sortu eta lehendabiziko urratsak emateaz gain, apuntatu beharra dago *Egunkaria*-ren bilgunea gainditzeko asmatzea”.



1996ko udaberrian, Miramar I eta Miramar II: AEK, IKA, UEU, UEMA, EKB, EHE, Euskaldunon Egunkaria, Elkarlanean-Zabaltzen, Bertsozale Elkarteak, EIZIE, Herri Irratia, UZEI, Elhuyar, Jakin, Hik Hasi, Euskara Elkarteak...

1997ko martxoan, Jardunaldiak:

1. Euskararen inguruan diskurtso edo mezu berri baten beharra (Euskararen mundua unibertso bat da, ez kategoria; Hizkuntz Komunitatea; Garapen eutsigarria...).
2. Euskalgintzako taldeen artean kohesioa landu beharra.
3. Euskararen normalizazioari begira gizartean lan egin beharra (Plangintza).

“Kontseiluak euskarak garapen osoa izan dezan lan egingo du; beraz, euskararen normalizazio-prozesua areagotzea da Kontseiluaren eginkizun nagusia. Horregatik, barne- eta kanpo indarrak euskararen aldeko prozesu zabalean inplikaraziz lan egingo du”.

“Euskalgintzaren muina ere bada Kontseilua, neurri handi batean; bere indarrak artikulatzea eta euskararen gizarte mugimendua kohesionatzea lehentasunak dira Kontseiluarentzat. Bere baitako batasunetik zabalduko dio euskal gizarteari normalizaziorako beharrezkoa den elkarlan-dinamika”.

(...)

1. Argibide metodologikoak.
2. Euskarari buruzko enmarkatze (*to frame*), diskurtso, estrategia eta aliatze (*frame alignment*) euskaltzalea.
3. **Ziklo aldaketa definizio sozialaren legitimazio sinbolikoan.**
4. Askatasun linguistikoaren diskurtsoa.
5. *Euskara XXI* egitasmoa. XXI. mende hasierarako hizkuntza politikaren oinarriak.

### **1/3. Botere-paradigmak topea**

Boterearen paradigma?

Motiboak (unibertsalak, lokalak)

Gizarte aldaketak, irudikari kolektiboaren bilakaera, identitate-politikaren mugak, instituzioetara egokitzea tarteko direla...

” ...Irekiera arazoak

Euskal protesta-zikloaren akitzea (etikoa, politikoa); ez da erregai simbolikoa.

## **2/3. Joera baten sendotzea eta bere zehar-ondorioak**

Eraginaren paradigma

Euskararen mugimenduak aldatu eta garaiko beharretara egokitu izan direnez ...

Eragin-politikaren hazkundera eta interes-taldeen ugaltzea;

Anbiguotasun naturala: “Instituzioekin ez... edo bai, baina...”.

### **/3. Aldaketak pertzepzio sozialetan**

Identitate-paradigma?

Baliabide legitimoaren statusa lortu izana

Normaltasun-sentsazioa

Ilusio falta

Hegemonia arazoa

Gizarte aldaketak: galdu egin da balio eta kultura-molde batekin izan zezakeen lotura (ideologikoa).

”Orain gutxi geu ere botere-paradigma batetik eragin-paradigma batera pasa gara, aitortzen gaituzte, tarteka proposamenak ere bai, keinuak daude

Ondorioa da, eragile aitortua, arauen betearazlea, eraginkorra izatera pasatzea? Euskara, merkatu-politikan eskari bat izango da, eta indar-korrelazioen araberrako eskaintza jasoko du

Zenbait arrisku/arazo, arrakasta dela eta

Profesionalizazioa eta gestio teknikoa, “hizkuntza-politikaren kaltetan

Orainaldiaren tirania, bulkada etikoaren kaltetan

Koiunturazko ardura vs. bisioa

Non da “eragile ukatua”, “arauen desafiatzailea”, “berritzailea

Eragin-politika: errutinazkoa bilakatzen da, kooptazioa nagusitu daiteke

Nortasun-paradigmaren ahultzea? Botere-politikaren ahultzea

## Oinarrizko premisak (gogorapena):

- Iparra: besteak ahuldu eta pertsuaditu, aldaketa barneratu, gogoia piztu
- Bitartekoa: errepertorio diskurtsibo eta ekintza kolektibo “egokia”.

## Euskararen mugimendu sozialak

- Eginkizuna: normalizatu ez dagoen komunitate bati normalizaziorako guneak eta espazioak artikulatzen laguntzea eta oro har sistemaren kudeatzaileei beren helburuak eta bitartekoak eraldatzera behartzea
- Diagnostiko biren agerpena
  - Jarrera kritikoa: “nortasun-politika” eta “botere-politika” baztertuak geratu dira, eta orain xede bakarra “eragin-politika” bilakatu da
  - Jarrera ekintzailea: “identitate legitimatzailea” ez da euskaltzalea, “erresistentzia identitatea” ez da egokia aro estatutistan, eta beraz “proiektu identitatea” da aterabidea eta horren faltan gaude



1. Joera mendebaldarra: ideologia politikoaren ahultzea, ideien monopolioa, norbanakoaren eskubideen eta askatasun indibidualen erreinua
2. Joera lokala: erakundetzea, ideia eta borroka-moldeen eraberritzea, adostasunaren diskurtsoa
3. Joera konstitutiboa: garai berrira egokitzearen hautua, eragin-politikaren lehenestea, profesionaltzea, interes-taldeen ugaltzea

### 4.- Ibilbide historikoak bi ikasgai dakarzkigu:

1. Identitate legitimatzaileak ez du ekarriko normaltasuna, eta bere diskurtso-aldaerek hizkuntza gauza publiko bat bezala ulertzeari utzi diote, desertzio horretan hiztunen aterabide pertsonalera mugatuz etorkizuna;
2. Erresistentzia identitateak ez du lortu aldaketa eragitea, alegia, arauak desafiatzea, artikulazio hegemoniko berri bat errotzea eta beraz herri euskalduna sortzea.

5.- Estatutuaren haurrek deskolonizazio prozesua gainditu izanaren pertzepzioa dute, egoki deritzote ibilbideari, arrunta zaie egoera. Euskararena ere borroka ideologiko bat da, baina jendartearen beste “kezka” batzuetan harrapatua bezala dabil.

6.- Euskal jendartearen kultura asebetean bizi da. Badago indibidualismoarekiko desenkantua (joera europarra), identitatearen garaia da, baina gure kasuan identitate-aterpea ez da euskara.

1. Argibide metodologikoak.
2. Euskarari buruzko enmarkatze (*to frame*), diskurtso, estrategia eta aliatze (*frame alignment*) euskaltzalea.
3. Ziklo aldaketa definizio sozialaren legitimazio sinbolikoan.
4. **Askatasun linguistikoaren diskurtsoa.**
5. *Euskara XXI* egitasmoa. XXI. mende hasierarako hizkuntza politikaren oinarriak.

1. Abertzaletasuna eta euskaltasuna biak elikatzen ziren garaietan, euskara identitate nazionalaren erreferentzia eta elikagai simbolikoa zen, baina gainera hiruko bat zen hizkuntza-nazioa-demokrazia.
2. Hirutasunak iraupen luzea izan du eta orduko inertziek halako zailtasun bat suposatu diote euskararen biziberritzea mugatzeko asmoei; egon bazen sentimendua, baina hori espazio publikora zabaltzeko ausardia berriagoa da.
3. Azken urteotan euskalgintzatik kanpo errekurtsio simboliko bezala diskurtso bat ari da naturaltasunez espazio publikoan tokia egiten.

90. hamarkadaren bukaeran, “garaiezintasunaren mitoa” borrokatzeko estrategia oso bat planteatzen da.

Estrategiari izen orokorra eman diot, izan ere, denominazio partziala iruditzen zait “ETAren garaiezintasun polizialaren mitoa” deritzoguna.

Abertzaletasunaren hegemonia politikoa eta soziala delakoren aurkako lehia definizio sozialak eta irudikapen sinbolikoak landu(ko) dira, legitimazio bila. Lehia sinbolikoa prestatu da.

XXI. mende hasierako hizkuntza-politikaren oinarriak (*Euskadi XXI*) nekez ahal da horien konfrontazioa gabe ulertu.

*Askatasun linguistikoaren diskurtsoa: Kontra-mugimendua*

(Heterogeneitatea)

Hizkuntza-politikaren eztabaida, askatasunari buruzko debatea da: eskubide linguistikoak vs. askatasuna;

Hizkuntzaren paradigmak (euskara, normalizazioa) askatasuna urratzen du, eta hiztunaren paradigma hobetsi behar da;

Herritarrak ez dira euskaldunak edota espainolak, baizik eta, elebakarrak eta elebidunak;



Eskubideak hierarkikoak dira: eskubide indibidualak maila gorenekoak dira, beraz, eskubide kolektiboen muga beti izango da pertsona kaltetuen eskubidea;

Elebidun eta elebakarraren eskubideak egoera asimetrikoan daude: elebidunen eskubideak aukerazkoak dira, gainera elebidunen aukeratzeko gaitasuna elebakarren betebeharrak bilakatu da;

Eremu linguistikoan –adb., erlijioarekin ez bezala-askatasuna erlazionala da (besteen partehartzea eskatzen du), honenbestez, ez dakienak ikastearen kostua handiagoa da, bi dakizkienak gogoko duena alboratzea baino;

Hizkuntzek badute funtzio sinbolikoa, laudagarria eta toleratu beharrekoa (erlijioa bezala, norbere kontzientzian), baina espazio publikoan funtzio komunikatiboa da inporta duena;


Gure egoera linguistikoak berezitasun bat du, alegia, hizkuntza frankoa dugu, *koiné* funtzioa betetzen duena.

*Euskara 21 egitasmoa. XXI. Mende hasierarako  
hizkuntza politikaren oinarriak*

1. Organigrama
2. Prozesurak eta metodologia
3. Kokapenerako oharrak

*Itun berri baterantz txostena*

# EUSKARA XXI: organigrama



	1. URRATSA	2. URRATSA	3. URRATSA
EGINKIZUNAK	OINARRIZKO TXOSTENAREN IDAZKETA	OINARRIZKO TXOSTENARI IRUZKIN KRITIKOAK	<i>ITUN BERRITU BATERANTZ TXOSTENA</i>
KIDEAK	BATZORDE-ATAL IRAUNKORRA	BATZORDE-ATAL BEREZIA ETA HERRITARRAK (Euskara 21 webgunea)	BATZORDE-ATAL IRAUNKORRA
EPEA	2008ko urtarrila – 2008ko apirila	2008ko apirila – 2008ko urria	2009ko urtarrila

Euskarak sekula ez bezalako babes legala eta neurri sustatzaileak ditu.

Baliabideak zuzendu dira eta dirua ere bai, baina ez da aski etorkizuna bermatzeko.

Zein da gakoa? Erabilera lortzea. Eta erabileak aurre-baldintza bat du: euskararen inguruan herritarren atxikimendua eta leialtasuna eskuratzea; legeekin eta dekretuekin ez dena posible.

Euskarak sekula ez bezalako babes legala eta neurri sustatzaileak ditu.

Baliabideak zuzendu dira eta dirua ere bai, baina ez da aski etorkizuna bermatzeko.

Zein da gakoa? Erabilera lortzea. Eta erabileak aurre-baldintza bat du: euskararen inguruan herritarren atxikimendua eta leialtasuna eskuratzea; legeekin eta dekretuekin ez dena posible.

1. Adostasuna birpentsatu beharra.
2. Hiru etsai (simetriko):  
Gaztelera hautua, euskara inposizioa;  
Euskararentzat eskubideak, erdarentzat obligazioak;  
`Laissez faire` (hizkuntza-politika)
3. Justizia linguistikoa.
4. Bide-mapa: gaztelera kudeaturiko diglosiatik hizkuntza-aniztasun orekatura.



Makulu eraginkorra: Euskararen Legearekin erdietsitako (1982) adostasuna.

Iparra: euskara normalizatzeko gizarte ituna berritzea.

Helburua (Euskara 21): gizarte ituna berritzeko oinarriak ipintzea.

Erronka (legealdi berrian?): EBPN Euskara Biziberritzeko Plan Nagusian txertatzea.

Neurri politikoak: orokorrak ala tokiko errealitate sozio-linguistikora egokituak?;

Tituluak ala konpetentzia linguistikoak?;

Euskararen ezagutza: eskubidea ala betebeharra?

Euskara eta eskola: ezagutza ala erabilera?  
Hezkuntza ala agente guztiak?

## TXOSTENAREN EGITURA

1. Sarrera
2. Garena: nondik gatoz, non gaude, nora goaz
3. Lan-ildo nagusiak
4. Itun berritu baten abiapuntuak

Hizkuntza politikari buruz aurreiritzi eta mugarik gabe eztabaidatzea;

Eztabaida prozesu horretan ahalik eta sektore gehienek partaidetza bilatzea/ sustatzea;

XXI. mendean euskara indarberritzen jarraitzeko mugarriak zedarritzea, nondik gatozen, non gauden eta nora egin nahi dugun sakon aztertuz;

Gutxiagotutako hizkuntza bat indarberritzeko ezinbestekoa den gizarte-adostasunerako ekarpena egitea.

XXI. Mende hasierarako hizkuntza politikaren oinarriak finkatzea;

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (1999) berritzeko gidak proposatzea, egungo euskal hiztunen zein bihar-etzikoen beharrei erantzuten jarraitzeko.

“Ezinezkoa gertatu da ideia guztiak biltzea gogoeta irekiaren ondorengo txosten honetan, asmoa ez baita sekula izan batu ezin daitezkeenak batzea, baizik eta mende berriaren hasierarako **egokia** izan behar duen hizkuntza politika berri baten oinarri koherenteak eta eragingarriak finkatzea”.

“Horixe baita, beste deusen gainerik, euskararen biziberritzeak behar duena: **adostasun eragingarrira eraman gaitzan iritzi-trukaketa leiala**”.

Biziberritze prozesuaren arrakasta bermatzeko nahitaez gertatu behar diren faktoreak:

1. lege-marko egokia, hizkuntza normalkuntza ahalbidetzeko behar bestekoa izango dena;
2. hizkuntza politika eraginkorra eta baliabideak;
3. herritarren atxikimendua eta hizkuntzaren aldeko jarrera eta konpromisoa.

Hirugarren faktorea azken 25 urteotan:

1. herritarren euskalduntze-ahalegina;
2. seme-alabentzat, irakaskuntza eredu euskararen aldetik, eragingarrienak aukeratzeko dituzten gurasoak.

“Gure hezkuntza sistemak, A ereduaren salbuespenarekin, posible egiten du ikasleak gutxieneko maila bateraino euskalduntzea”.

“Dena den, hezkuntza sistemak (B, D) muga argiak ditu, ez du ziurtatzen haur eta gazteen euskalduntzea”.

Beste ahalegin batzuk ere egin behar direla gizartearen beste hainbeste arlotan: familian, aisialdian, enpresetan, eta abar.

Euskalduntze prozesuan beste faktore batzuk: hezkuntzaz gain, eragina dute familiaren etxeko hizkuntzak, maila sozio-ekonomikoak, bizi-inguruneak, irakasleen hizkuntza gaitasunak eta prestakuntzak, ikasleen atxikimenduak, eta abar.



Euskal kulturaren ekoizpena “herri erakundeen **laguntza politikak** baldintzaturiko eskaintzari” lotua dago;

“Kontua da, ordea, hizkuntza ahul batean, goi mailako kultura ekoizpena bermatzeko ezinbestekoa den babesak, ezin diola kultura ekoizpen horri merkatuarekiko kontrastea ukatu, ez baldin bada euskarazko kultura sistema betiereko nerabegarora kondenu nahi. Aitzitik, euskarazko kulturarekiko babes politika diseinatu eta gauzatzekoan, **beregaintasun irizpidea** oinarri harturik jardun beharko dute herri erakundeek”.

Helburuak: batetik, kontsumoan eragitea, kultura ekoizpenaren eta merkatuaren hazkundera sustatzeko; bestetik, eta mundu mailako kultura zirkuituetan modu eragingarri eta erakargarrian txertatzea, kalitatea irizpide gisa erabilita.

1. “Lortu nahi den elebitasun ahalik eta orekatuenaren bidean, onuragarri da, zeharo, hizkuntzen arteko bizikidetza ekinbide publiko orotan bistaratzea, beharrezko edota saihestezin gerta daitezkeen asimetrien beldurrik gabe”.
2. Euskararen “**lan-merkaturako balioa**”. Hiru faktore lotu behar dira, estu-estu: trebakuntza performatiboa (zeregin zehatz praktikoekin loturiko prestakuntza), erabilera (parametro komunikatiboetan oinarritua), eta, erabiltzearen poderioz bakarrik biziraungo duen hizkuntza bat erakargarria egitea etengabe.
3. Helburua: “espero dezagun hemendik 25-30 urte barru, tartean gauzak txukun eginez gero behintzat, inork ez diola planteatu beharko bere buruari testuinguru batean edo bestean euskaraz egin ote dezakeen, ingurukoak erdaldun elebakarrak izatearen susmoz edo beldurrez. Eta egitate horrek zedarritzen du, gerora begira, euskararen biziberritzearen, hots, euskal gizarterako desiragarria den elebitasun motaren aurrerabidea”.

1. Ez dago, zorionez, euskal elebakarrik. Hau da, euskal hiztun guztiak elebidunak dira, eta, gainera, bertakoa ere baden beste hizkuntza batean –sendoa, ordea, berau– dira elebidun.
2. Euskararen beraren garapen mugatua da; bizikide dituen hizkuntzen aldean, urtetan jasan duen zokoratze prozesuarengatik. Era berean, zokoratze prozesu horrek berak euskararen erabilera eta kontsumoaren aurkako hizkuntza ohiturak sortu ditu, eta horrek eragin zuzen-zuzena du euskararen prestigio sozialean.
3. Gure errealitate soziolinguistiko askotarikoa da; lurraldez lurralde zein lurralde bakoitzaren barnean ere, askotarikoa.
4. Elebidunak oraindik gutxiengoa dira.
5. Euskal hiztunen gaitasun erlatibo ezberdinek mugatu egiten dute hainbat esparrutan euskara erabiltzeko aukera baliatzea.
6. Euskararen eta hizkuntza bizikideen arteko tartea nabaria da, euskara ikasteak eskatzen duen ahalegin bereziarengatik.
7. Garenaren neurriaren apala.

“Eta gaineratu diezazkiegun geure **errealitate**tik datozen muga horiei herritarren **eskubideen** arteko harmonizatzeak berez dakartzanak, eta zentzuzko **abiapuntua** jarri ahal izango diogu XXI. mende hasierako hizkuntza politikak erronka nagusitzat izango duen euskararen erabileraren aldeko lanari”.

“**Asimetria** baterantz goaz, beraz, gizarte elebidun baten helburua posible izango bada, eta asimetria hori bai geografikoa eta baita funtzionala ere izango da”.

“Euskarak eta gaztelaniak funtzio ezberdinak bereganatuko dituzte, nolabaiteko **banaketa funtzional** baten arabera, eta beste hainbeste gertatuko da euskarentzat erreklamatzeko ditugun lurraldeei dagokienez: ez da guztietan, inondik inora ere, hiztun, erabiltzaile eta gaitasun maila bera erdietsiko”.

“Aurrekoak dakarrena, ezinbestez, espazio publikoan bi hizkuntzen erabilera arautu beharra da, eta arautze horretan hizkuntza ahulenaren alde egin beharra, beti ere errealitate soziolinguistikoaren arabera eta guztiz garbi izanda diglosiak ez duela **biziraupena** bermatzen, baina, gurean, diglosiarik gabe, **nolabaiteko konpartimentazio funtzionalik gabe, ez dagoela biziraupenik**. Eta printzipio hori onartzeak, mende berriaren hasierako hizkuntza politikaren muin-muinean txertatu beharra dagoen progresibotasunaren printzipioa gureganatzea dakar. Ezin baitira denak aldi berean egin, dena gauek goizera egiterik ez dagoen bezala”.

“Nolanahi ere, garbi dago **erantzukizuna norbanakoarena** dela, eta ez dela ordezkagarria. Norbanakoaren borondatea eta jarrera dira erabakigarriak, eta horiek norberaren erabaki librearen esku daude”.

“Norabide paralelotan doazen bi ahalegin bateratu eta orekatu behar dira, aipatzen ari garen elebitasun asimetriko horretan, euskararen aldeko gerta dadin diglosia berreskuratze aldera: ikuspegi geografikoari dagokionez, euskararentzat bera nagusi izango den erabilera- eta transmisio-eremuak, arnasmuneak zaindu, sortu eta indartzea; eta ikuspegi funtzionalari dagokionez, eta hizkuntzen arteko banaketa funtzionala aldeztu aurretik onartuta, euskarari gero eta funtzio gehiagotarako bidea irekitzea”.

“XXI. Mende hasierako hizkuntza politikaren helburuak ezin du izan, soilik, euskaldunak sortzea, baizik eta ahalik eta euskaldun gehienak, ahalik eta egokiera, toki eta esparru gehienetan euskal hiztun bihurtzea, erabilera dela medio. Bestela, begi-bistakoa da arriskua: gero eta euskaldun gehiago, eta, neurri berean, euskal hiztun-komunitate gero eta ahulagoa”.

“Gurean, bizi-indar afektiboa da balio nagusia, eta balio horretaz jabetzeko gakoa, borondatea eta barne motibazioa dira, horiek baitira, azken batean, euskara esparru ez-formal, pribatu eta afektiboenetara helarazteko motor indartsuenak”.

“**Garenaren neurriak** ematen digun eskalak eta hortik ondorioztatzen diren mugak baldintzatu egiten gaituzte hizkuntza eskubideak gauzatzekoan”.

Eleaniztasunari buruzko irizpide funtzional berriaren arabera lan-ildo nagusiak dira:

Euskarazko kultura ekoizpena eta merkatua:  
kontsumoa, kalitatea;

Ezagutza areagotzea eta euskararen arnasmuneak zaintzea: “erabileraren aldeko urratsa elebidunon erantzukizuna da, euskarara hurbiltzea elebakarrarena den bezala”;

Progresibotasuna eta erritmo aniztasuna. Bi arrazoigatik: egoera soziolinguistikoagatik eta herritarren arteko adostasun zabalagatik.



”Lege-araubideak, euskararen biziberritzeari eta gizarte eleaniztun baterako bidean benetan eragingarria izango bada, herritar bakoitzaren atxikimendurik sendoenetik sortua behar du nahitaez, **atxikimendu** horrek bakarrik bihur baitezake jasangarri hizkuntza plangintzak sor ditzakeen ezerosotasunak

”Era berean, lege-araubidearen diseinu eta garapenak behar duten atxikimendua, jakina, **pertsuasio eta erakargarritasunetik** bazkatzen da, eta horiek dira euskal hiztunen elkarteak, euskara biziberritzeko hizkuntza politikaren lan-ildo guztietan lehentasun osoz, etengabean landu beharko dituen soroak

”Honatx, bada, mende berriko hizkuntza politikak erantzunik gabe utzi ezin duen galdera: nola lortu euskal hiztunen erkidego sendo bat? Abiapuntua ez dugu aldekoa: euskarak ez du sekula izango beste hizkuntza batzuek duten barne indarra hainbat alorretan (aisialdia, lana, posizio soziala...); gurean, **bizi-indar afektiboa** da balio nagusia, eta balio horretaz jabetzeko gakoa, borondatea eta barne motibazioa dira, horiek baitira, azken batean, euskara esparru ez-formal, pribatu eta afektiboenetara helarazteko motor indartsuenak

”Arindu behar dugu euskal hiztun berri bilakatzeko asmoz ikasketa prozesuan barrena abiatzen dena euskararen mundu erreferentziala bereganatzeko obligazioaz. Ez baita hizkuntza –ez euskara ez beste inongo hizkuntzarik– mundu afektibo bat daukana **pertsonak gara mundu afektiboa daukagunak**, eta mundu afektibo horri dagozkionak adierazterakoan, mundu afektibo horri erantsitako hizkuntza da naturaltasun handienaz gutariko bakoitzak erabiliko duena

”Identitate kultural eta afektibo ugari bizi dira elkarren ondoan gure gizartean (eta gizarte guztietan), baina baita ere **gutariako bakoitzaren baitan, gune irekietan bizi garenon kasuan bederen**. Hizkuntza batetik besterako zubia pasatzeko pasaportearen beharra bertan behera utzi beharra dago, malgutasunaren alde, malgutasun horrek lasaitasuna ekar baitezake, eta lasaitasunak, erabilerarako erraztasuna

”Ezin da inor behartu euskararekiko leial izatera, euskarari atxikimendua edukitzera, **baina** jakin behar dugu leialtasuna eta atxikimendua direla euskarak nahitaez behar dituen jarrerak, hizkuntza bizia eta gero eta erabiliagoa izango bada; eta herritarrei, euskal hiztun direnei nahiz ez direnei, jakinarazi egin behar zaie hori

”Hizkuntza politikak, nolana hikoia ere den politika hori, huts egingo du, ez badu kontuan izaten hizkuntzaren erabilera, azken batean, inork ere ukatu ezin duen **hiztunaren borondatezko nahian** hartzen duela indarra: euskaraz egin nahi duenari lagundu behar zaio, eta, batzuetan, asko lagundu beharko zaio gainera, baina euskaraz jakinik, beste hizkuntza bat erabili nahi duenari, nahia errespetatu behar zaio

”Zein dira, hortaz, **euskalgintza pribatua** osatzen duten gizarte mugimendu, elkarte eta enpresen **jarduera-eremuak**, osagarritasunaren printzipioaren arabera? Hona hemen nagusiak: hizkuntza plangintzan aurreikusitakoak mamitzeko herri-aginteekin lankidetzan aritzea; euskara biziberritzeko prozesuan herritarren atxikimendua landu eta areagotzea; hizkuntza politikaren eragingarritasuna hobetzeko proposamenak egitea

”Herri-aginteak, gizarte mugimenduak, elkarteak, enpresak, hau da, **azpijokorik gabe ari diren guztiak behar** ditu euskarak, baina hori bezain garbi ulertu behar dugu denok horien guztien zeregin eta interesak ez direla berdinak, ez eta, batzuetan, harmonikoak ere

”Nolanahi ere den, zalantza guztien gaineratik utzi beharra dago, honetazari garenez, funtsezko abiapuntu demokratikoa **herri-aginteak** dira **interes publikoa** ordezkatzan dutenak, haiek baitira herritarren eta bere ordezkarien kontrolpean daudenak

”Errealitate horrekin erabat bateraezina da gainditutako garaietatik datorkigun **mito bat**: euskararen aldeko lana erresistentzia mugimendu bat dela pentsarazten duena, hain zuzen, eta hiperkritizismo suntsitzailea sustatzen duena. Mito horri oraindik ere eusten diotenen artean joera nabarmena dago herri-aginteei euskararekiko etsaigoa edota, gutxienez, zabarkeria edo lasaikeria egozteko. Eta, jakina, hortik euskara alderdikieriaz erabiltzera ez dago inolako tarterik



”Nolanahi ere den, zalantza guztien gaineratik utzi beharra dago, honetazari garenez, funtsezko abiapuntu demokratikoa **herri-aginteak** dira **interes publikoa** ordezkatzan dutenak, haiek baitira herritarren eta bere ordezkarien kontrolpean daudenak

”Errealitate horrekin erabat bateraezina da gainditutako garaietatik datorkigun **mito bat**: euskararen aldeko lana erresistentzia mugimendu bat dela pentsarazten duena, hain zuzen, eta hiperkritizismo suntsitzailea sustatzen duena. Mito horri oraindik ere eusten diotenen artean joera nabarmena dago herri-aginteei euskararekiko etsaigoa edota, gutxienez, zabarkeria edo lasaikeria egozteko. Eta, jakina, hortik euskara alderdikieriaz erabiltzera ez dago inolako tarterik

”Euskararen aldeko errebindikazio politikoa positiboa den bezala, ez da bidezkoa euskararen etorkizuna programa politiko jakin baten edo bestearen etorkizunaren menpe jartzea

”Beraz, eta koherentziaz jokatzeko, alde bakarreko sinbologia politikoak agertzea baztertu beharko litzateke, arreta handiz, euskararen aldeko ekimenetan. Euskarak gizartean duen onespén eta erakarmena ez lituzke inork baliatu beharko alderdi-etekinik ateratzeko, jatorriz euskararen aldeko izan zitezkeen hainbat ekimen instrumentalizazio politikoak desitxuratuetan askotxotan ikusi ohi dugun bezala

“Ez da, jakina, `denak ala inor ez, dena ala ezer ez lelotzat hartuta eraiki daitekeen hizkuntza politika; bai, ordea, **`amets eroak baztertuz bertan, sasi zikinak behingoz erreta** taiutu beharrekoa. Hori baita gaur arteko ahalegin oparoak eskatzen duen jarraipena”.

“Baina esan dezagun, gure iritzian behinik behin, gaurkotasun eta egokitasun erabatekoak dituela Joxanton Artzek maisuki idatzitako hark: **`Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek hitz egiten ez dutelako baizik**”.

1. Euskararen ezagupena eta erabilera belaunaldi berrietan bermatzea.
2. Euskara ohiko hizkuntza izango duten arnasgune eta funtzioak zaindu, indartu eta hedatzea, euskararen belaunez belauneko transmisioa bermatzeko eta erreferentzialtasun soziala indartzeko. Azken batean, helburua ez baita euskararen ezagutza zabaltzea, besterik gabe, baizik eta euskal hiztunak sortzea.
3. Familia-transmisioa bermatzea, oso bereziki 25 urte barru izango diren 30 urtez azpiko gazte elebidunek euskara ere izan dezaten etxeko hizkuntza. Hauxe dugu etorkizunaren gako nagusia.

4. Euskal hiztunen erkidegoa trinkotzea, euskararen erabilerarako sare operatibo presentzialak zein birtualak hedatuz eta indartuz.
5. Hiri handietan euskara erabiltzeko aukerak areagotzea, familia euskaldunei, gazteei eta haurrei lehentasuna emanez.
6. Elebitasun pasiboa helduen munduan –eta gutxieneko helburutzat– areagotzea eta prestigiatzea.
7. Euskarazko kultura kontsumoa indartzea, euskal kultura industria, ekoizle eta sortzaileekiko ikuspegi askatzaile batetik.

8. Euskara eta haren munduak etorkinengana hurbiltzea, hauen integrazio zabala eta aberasgarria ahalbidetzeko eta euskara erabilera-eremu demografikoki dinamikoetara hurbiltzeko xedez.

9. Euskaraz komunikatzeko estandarrak malgutzea eta aberastea, hiztun berrien adierazkortasunaren mesedetan. Zuzentasunaren irizpide bakarretik komunikagarritasunarenera eta adierazkortasunarenera igarotzea.

10. Hizkuntza eskubideak eremu publikoan aitortzeko ez ezik errespetatzeko bidean, euskara erabiltzeko aukerak bermatzea.

11. Euskararen erakargarritasuna lantzea eta era egokian proiektatzea: euskarak mundu ugari ditu bere baitan, eta euskarara datozenen munduentzako tokirik ere badu bere barnean. Proiektatzen dugun baino anizkoitzagoa da euskararen unibertsoa, eta are anizkoitzagoa egin beharra dugu, gizartearen pare anizkoitza izatera iritsiko bada.

12. Euskararen irudiari prestigioa ematea, kultura eta komunikazioaren alorreko lorpenak garbi proiektatuz, batetik, eta, bestetik, euskal gizartearen kohesiorako osagai ezinbestekoa dela praktikan eta diskurtso publikoan adieraziz.

13. Hizkuntzaren teknologiak (informazio eta komunikazioaren teknologiak euskararen garapenerako baliatzea), sarerako euskarazko edukiak sortzea eta komunikaziorako sare birtualak era egokian baliatzea, euskararen normalkuntza eta erabilera aukeren mesedetan. Izan ere, euskarak informazio eta komunikazioaren teknologiez baliatu behar ditu, horixe baitu ezinbesteko baldintza hizkuntza guztiz garatua izatera iristeko.

14. Hizkuntza politikaren inguruko akordiorik zabalena etengabe elikatu eta sendotzea, euskararen biziberritzea eta kohesio soziala estu lotuko dituen itun berri baten bila.



Hizkuntza-politika EAEn: Diagnostikoa;

Hizkuntza-politiken jomuga teorikoak;

Euskaradunak eta hiztun berriak;

Instituzioak eta gizarte zibila.

1. Argibide metodologikoak.
2. Euskarari buruzko enmarkatze (*to frame*), diskurtso, estrategia eta aliatze (*frame alignment*) euskaltzalea.
3. Ziklo aldaketa definizio sozialaren legitimazio sinbolikoan.
4. Askatasun linguistikoaren diskurtsoa.
5. *Euskara XXI* egitasmoa. XXI. mende hasierarako hizkuntza politikaren oinarriak.

1. Euskalgintzak galdu egin du erdigunea, euskarak bizitza publikoan izan beharreko tokiaren lehia sinbolikoan.
2. Hizkuntza gutxitua berreskuratzeko kulturgileen, baliabide kognitiboen, egintza kolektiboen eta mobilizazioen arrakasta erlatiboan dago esplikazio-gakoetako bat.
3. Kultura esparru hegemonikoaren logikak, eraginak eta arauak sendotu egin dira euskararen toki naturalari buruzko eztabaida publikoan.
4. Abertzaletasunak ez du aliatze euskaltzalea elikatu, aitzitik, lehia abertzalea euskalgintzaren barne desadostasunen eragile izan da.

Eskerrik asko